

Memoria Giza Eskubideak

Donostiako Udala



2023





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Giza Eskubideen Saila

Aieteko Jauregia
Aiete Pasealekua 65, 20009 Donostia
943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus
www.donostia.eus/gizaeskubideak

01. Biktimei aitortpena	5
In Memoriam	6
Juan Antonio Marcos eta Miguel Ángel Íñigoren omenezko plakak	7
Oroimenaren Eguna	8
02. Oroimen Historikoa	9
Frankismoan egindako krimenen aurkako kereila	10
Gudari errepublikanoen omenezko memoriala	11
Memoria Historikoari buruzko Jardunaldia	12
Oroimen Historikoaren ibilbideak	13
"Oroimenaren bidea", bisita antzeztuak	14
Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna	15
03. LGTBI+ politikak	17
LGTBI+fobia 2021eko eta 2022ko txostena	18
04. Artea eta Giza Eskubideak	19
Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 19. ekitaldia	20
05. Nazioarteko Egunak	21
Askapen afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna	22
Haurren Eguna Unibertsala	23
Biziaren aldeko hiriak / Heriotza zigorraren aurkako hiriak	24
Hiesaren aurkako Munduko Eguna	25
Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna:	
- Giza Eskubideak aldarrikatzeko gunefesta	26
- Mandala, Kontxako hondartza	27
- Adierazpen Unibertsala, Udal-ekipamenduetan	28
- PaseARTE. Giza Eskubideei buruzko ibilbideak	29
- Jarduerak, Haurtxokoetan eta Gaztelekuetan	30
06. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia	31
Donostiako Giza Eskubideen 20. Zinemaldia	
- Aurkezpena	32
- Sariak eta palmaresa	33
07. Elkarteentzako dirulaguntzak	34
08. Giza Eskubideei buruzko XXVII ikastaroak	35




Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez (Aiete Jauregia) lan egiten du bake kultura hedatzeko, giza eskubideak sustatzeko eta oroimen historikoa berreskuratzeko. Betiere beste udal atal, erakunde, elkarte eta hainbat herritarrekin batera.

www.donostia.eus/gizaeskubideak



Biktimei aitorpena

07




In Memoriam

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Batzordearen bitartez, konpromiso sendoa mantentzen du terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen memoria, egia jakiteko eskubidea, justizia, erreparazio morala eta duintasuna babesteko.

Udalak biktimen aitorten eta oroimenezko ekimenak egin ditu. Besteak beste, plakak jartzen jarraitu du: 1960 eta 2020 urte bitartean ETAk, Batallón Vasco Españolak eta GALek eraildako donostiarren nahiz hirian bertan hil zituzten pertsonen oroimenez; baita poliziaren biolentzia jasan dutenen oroimenez ere. Biktima horiek guztiak Eusko Jaurlaritzaren honako dokumentu honetan bildu dira: "Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri".

2023ko abendura arte, honako pertsonak oroitzeko 26 plaka jarri dira erailak izan ziren tokietan: Juan Maria Araluce, José María Elícegui Díez, Antonio Palomo Pérez, Luis Francisco Sáenz Flores, Alfredo García González, Gregorio Ordóñez, Francisco Martín González, Fernando Múgica Herzog, Rafael Garrido Gil, Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta, Miguel Paredes, Elena Moreno, Daniel Garrido Velasco, Eugenio Olaciregui, Francisco Javier Gómez Elósegui, Josu Leonet Azkune, José Ángel Santos Laranga, Juan de Dios Doval de Mateo, Miguel Ángel Iñigo Blanco eta Juan Antonio Marcos González, guztiak ETAk erailak -, Enrique Cuesta, Antonio Gómez eta Juan Manuel García Cordero - Komando Autonomo Antikapitalistak taldeak erailak -, Begoña Urroz Ibarrola - DRIL talde armatuak eraila -, María José Bravo del Valle - Batallón Vasco Español taldeak eraila - eta Joseba Barandiaran Urkola - poliziaren ekintzak eragindako biktima.





Juan Antonio Marcos eta Miguel Ángel Iñigoren omenezko plakak

Urtarrilak 28



Donostiako Udalak plaka bana jarri zuen Juan Antonio Marcos González-en eta Miguel Ángel Iñigo Blancoren omenez, ETAren biktimak 1978an.

Horiekin 26 dira Udalak Donostian terrorismoaren eta bortizkeria politikoaren biktimei gune publikoan ikusgarritasuna emateko ekimenaren baitan jartzen dituen plakak.



Ekitaldia Gabriel Aresti pasealekua eta Ametzagaña etorbidea elkartzen diren tokian izan zen. Besteetan bezala, omenaldi xumea egin zen. Bertan, alkate Eneko Goiak, udal taldeetako ordezkariak eta biktimen senideek parte hartu zuten.

Miguel Ángel Iñigo Blanco eta Juan Antonio Marcos González, 23 eta 20 urtekoak hurrenez hurren, guardia zibilak ziren. Land Rover batean Intxaurrendoko kuartela patruilatzen ari zirela ETAko bi kidek metrailatu zituzten, Polloeko hilerritik gertu.



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu





Oroimenaren Eguna

Azaroak 10

Urtero bezala, Donostiako Udalak omenaldia egin zien terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei. Ekitaldia Alderdi Ederren dagoen biktimak omentzeko "Oroimena / Memoria" monolitoan izan zen.

Bertan, udal korporazioak parte hartu zuen, Eneko Goia alkatea buru. Minutu batzuk isilean igaro ondoren, lore-eskaintza egin zuten, Udal Txistularien bandak lagunduta.



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu



Oroimen Historikoa

02





Frankismoan egindako krimenen aurkako kereila

Martxoak 2

Donostiako Udalak kereila aurkeztu zuen, Gerra Zibilaren eta diktaduraren errepresioaren biktimak izan ziren 24 langileren eta Donostiako Udaleko kargu publikoen aurkako erregimen frankistak krimenak egiteagatik.

Errepresaliatuen zerrenda Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialean sortutako lantaldeak hautatu du, epaitegietan egotzi ahal baitira.

Auzi honen berri eman zuten prentsurrekoan Eneko Goia alkateak, Ane Oyarbide Berdintasunerako, Elkartasunerako eta Eskubide Zibiletarako zinegotziak, Aratz Estomba abokatuak, Memoria Historikoaren Kontseilu Sektorialeko kideek eta errepresaliatuen senideek hartu zuten parte.

Donostiako alkate Eneko Goiak azpimarratu zuenez, *kereila aurkeztea «beste pauso bat da egiaren, justiziaren eta erreparazioaren bidean, hain zuzen ere Donostiako Udalak frankismoaren eta Gerra Zibilaren biktimen inguruan bultzatzen ari den ekimenean».*

Bestalde, Ane Oyarbide Eskubide Zibiletako zinegotziak gogoratu zuen *«betebehar morala dugula diktadura frankistaren izua jasan zutenei ohorea itzultzeko eta haien memoria berreskuratzeko».*



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu





Gudari errepublikanoen omenezko memoriala

Martxoak 12



Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak omenaldia egin zieten Polloeko hilerriko mausoleo frankistan identifikatutako 17 milizianoei, biktimen senitartekoen laguntzarekin.

Memoriala Errepublikaren erregimen legitimoaren aurkako estatu-kolpearen ondorioz askatasunaren alde borrokatu eta bizia galdu zuten pertsona guztien omenez eraiki da. Bakoitzaren izenak dituen plaka batek eta 'Duintasuna' eskulturaren erreplikak osatzen dute.

Omenaldian Eneko Goia alkateak, José Antonio Ranz Rodríguez Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Memoriaren eta Lankidetzaren sailburuordeak eta biktimen hogeita hamar bat senidek parte hartu zuten. Iñigo Arregiren eskulturaren erreplika jaso zuten, oroigarri gisa.

Bertan izan ziren, halaber, Aintzane Ezenarro, Oroimenaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria - Gogora; Ane Oyarbide, Donostiako Udaleko, Berdintasun Elkartasun eta Eskubide Zibilen zinegotzia eta Donostiako Udalbatzako kideak; Julen Arzuaga eta Ion Gambra Gogora Zuzendaritzako Kontseiluko kideak eta Jon Hernández parlamentaria.



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu





Memoria Historikoari buruzko Jardunaldia

Martxoak 16

Donostiako Miramar Jauregian, herritarrentzako ekitaldi irekia egin zen, Donostiako Udalaren enkarguz, Aranzadi Zientzia Elkarteak egin duen lana aurkezteko, hain zuzen ere memoria historikoa berreskuratzeko eta gure hirian gerraren eta frankismoaren errepresioa jasan zuten biktimei duintasuna emateko

Azken sei urteetan zabaldu den ikerketa honen ondorioz, Donostia 1936. Oroimena izendatzen webgunea sortu da. Gerra zibilean eta diktadura frankistan, 1959. urtera arte, giza eskubideen urraketak jasan zituzten 8.000 pertsona baino gehiagori buruzko informazioa eskaintzen du. Donostiarrak eta, izan ez arren, Donostian errepresaliatuak izan ziren pertsonak dira.

Eneko Goia alkateak inauguratu zuen jardunaldia, eta bertan izan ziren Fabian Salvioli Egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak sustatzeari buruzko Nazio Batuen Erakundeko Kontalari Berezia; Jon Mirena Landa Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrako zuzendaria eta Javier Bucos, Aranzadi Zientzia Elkarteke Historia Garaikidean doktorea. Era berean, Donostian diktadura frankistak errepresaliatutako pertsonen senideek mahai-inguru batean parte hartu zuten.





Oroimen Historikoaren ibilbideak

Azaroa / ekaina

DBHko 4. mailako, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko 1.000 ikaslek baino gehiagok Memoria Historikoaren Ibilbideetan parte hartu zuten 2022-23 ikasturtean.

Urtero egiten den jarduera honek 1936ko estatu-kolpean eta ondorengo diktadura frankistan hirian esanguratsuak izan ziren tokiak ezagutzeko aukera ematen die ikastetxeei.

Bisitek, Koma Zerbitzu Kulturalak dinamizatuta, harrera ona izan dute ikasleen artean, ikasgeletan gerrari eta frankismoari buruz ematen diren edukien osagarri baitira. Edizio honetan, Donostiako, Urretxuko, Hondarribiko edo Usurbilgo hainbat ikastetxek hartu zuten parte, besteak beste.

Hainbat leku bisitatzen dira, hala nola, suhiltzaileen eraikin zaharra (babeslekua), San Jose ikastetxea (atxilotze-lekua), San Martzial kalea (bonbardaketak), Maria Cristina hotela (istiluen eszenatokia), Nautikoa (fusilamenduak) eta Dual eskultura (omenaldi-gunea).

DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN IBILBIDEA

Ikastetxeentzako eskaintza
Ezagutu itzazu 1936ko estatu kolpeko eta ondorengo diktadura frankistako gune garrantzitsuak.
www.donostia.org/bakearenetxea

RECORRIDO DE LA MEMORIA HISTÓRICA DE LA CIUDAD

Oferta a centros educativos
Conoce los lugares significativos del golpe de estado de 1936 y la posterior dictadura franquista.
www.donostia.org/casadelapaz

- Sarrera**
Introducción
- Gatazka belikoen lekuak**
Lugares del conflicto bélico
- Bonbardatutako lekuak**
Lugares bombardeados
- Atxiloteta guneak**
Centros de detención
- Lurperatze guneak**
Lugares de enterramiento
- Fusilamendu lekuak**
Lugares de fusilamiento
- Oroitzapenezko elementuak**
Elementos conmemorativos

Antolatzailea. Organiza

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos



Bisita antzeztuak “Oroimenaren Bidea”

Iraila / Urria

Urtero, Donostiako Udalak bisita antzeztuak antolatzen ditu, kolpe militar frankistan eta ondorengo urteetan gure hirian gertatutakoa ezagutzera emateko asmorekin.

Bisitak Gerra zibilaren hondamendiak zuzenean edo zeharka sufritu zituzten pertsona guztiei omenaldia dira. Iraileko larunbatetan eta urriko lehenengo igandean egin ziren. 231 lagunek parte hartu zuten.

Bi antzezlek, hiriko zazpi puntutan eta ordu eta erdiz, donostiarrek garai hartan bizi izan zituzten esperientziak kontatzen eta antzezten dituzte, Xabier López Askasibarrek idatzitako gidoiari jarraituz. Antzerki-istorioen bidez, jendearen konplizitatea eta parte-hartzea bilatzen da, “sentiarazi” eta gerra-gatazkari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa egiteko.





Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna

Irailak 13



Donostiako Udalak, irailaren 13an, Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna ospatu zuen, Federico García Lorcak “Sonetos de amor oscuro” idatzitako azken poemetan oinarritutako ikuskizun artistikoarekin. Horrez gain, gerraren eta diktadura frankistaren biktimak oroitzeko lore-eskaintza egin zen.

Udaletxeko Udalbatza Aretoak Viridiana antzerki-konpainiaren proposamen artistikoa jaso zuen. 1936an fusilatu aurretik Granadako poeta eta dramaturgoak idatzitako testuak ditu ardatz nagusi. Poema horiek ezkutuan argitaratu ziren, Lorca hil eta 50 urtera.

Goizean, Udalbatzak, hainbat ordezkari instituzionalekin, memoria historikoaren elkarteekin eta biktimen familiakoekin batera, lore-eskaintza batean parte hartu zuen, kolpe militarrek eta diktadurak eragindako errepresioa eta askatasunik eza jasan zuten donostiarren omenez.

Aurreko urteetan bezala, lore-eskaintza “Dual” eskulturaren aurrean egin zen. Eskultura horrek, hain zuzen, garai hartan hil zituzten pertsonak gogorarazten ditu. Ekitaldian, Kukai Dantza Taldeak pieza bat eskaini zuen haien oroimenean.




Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu





LGTBI+
politikak

03





LGTBI+fobia 2021eko eta 2022ko txostena

Apirilak 5



Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibiletako zinegotzi Ane Oyarbidek 2021 eta 2022 urteetan Donostian izandako LGTBI+fobia gorabeheren gaineko lehen txostena aurkeztu zuen.

37 salaketa erregistratu ziren. 19, 2021ean. 2022An, berriz 18.


Salaketen %60,5 (23) homofobiak izan ziren. Ondoren, transfobia dago, 10 salaketa, izandako guztien %26,3.

Eraso mota ugariena hitzezkoa da; izandako erasoen erdia. Erasoen fisikoak ere izan ziren (%29), mehatxuak (%23,7) eta diskriminazioak (%21,1) ere bai. Alegia, hiru gorabeheretatik ia bat eraso fisikoa edo horren ahalegina izan zen.

Erasoen %62 gizonak eragin zituzten eta ia %10 taldean egin ziren. Erasoen %8 emakumeek eragindakoak izan ziren. Erasoen biktimak, berriz, %74 gizonak ziren, %12 emakumeak eta %5,4 identitate disidentea dutenak (bollerak eta ez bitarrak). Banaka edo bikoteka egin zitzairen eraso pertsoneri. Emakumeei eta gizoneri erasotzeko moduan ia ez dago alderik.

Udan (uztaila, abuztua, iraila) eta otsailean jaso ziren erasorik gehien. Udan izaten den interakzio sozial handiagoa izan daiteke horretarako faktoreetako bat.

Artea eta Giza Eskubideak





Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 19. ekitaldia

Urria - apirila

2.700 haur eta gazte baino gehiagok parte hartu zuen Giza Eskubideen Sailak antolatutako Artearen eta Giza Eskubideen 19. Haur eta Gazteen edizioan. Guztira, 1.500 margolan aurkeztu zituzten.

Aurkeztutako obrak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 75. urteurrenaren ingurukoak, Victoria Eugenia antzokian jarri ziren ikusgai, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren baitan.

Sari-banaketa apirilaren 23an izan zen, Udaletxeko Udalbatza Aretoan. Sarituek eta haien familiek parte hartu zuten.

Ane Oyarbide Berdintasun, Eskubide Zibil, Hezkuntza eta Gazteria zinegotziak eta epaimahaikide diren Elena Odriozola ilustratzaileak eta Ricardo Ramón Dibulitoo enpresako animaziozko filmen ekoizleak banatu zituzten sariak.

Gainera, "Bazen behin irudi bat..." liburua ere argitaratu zen. Argitalpenak, marrazki sarituez gain, epaimahai ofizialak aukeratutako marrazkiak jasotzen ditu.



Nazioarteko Egunak

05





Askapen afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna

Ekainak 28



Escanea para ver el video del acto

LGTBI+ kolektiboaren eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna zela eta, Udalak Erakunde Adierazpena onartu zuen, non, besteak beste, jasotzen du gizartea kontzientziatzen lagunduko duten jarrerak eta politikak sustatzen jarraituko duela, benetako pentsamolde-aldaketa bat gerta dadin eta jarrera LGTBI-fobikoak desagerrarazi daitezzen.

Nekane Arzallus jarduneko alkateak eta udal talde guztietako ordezkariak irakurri zuten a Erakunde Adierazpena udaletxeko terrazan. Gainera, ostadarraren koloreak dituen alfonbra erraldoia jarri zen udaletxeko sarrerako eskaileretan, LGTBI kolektiboaren sinboloa.

Era berean, Kursala sexuaniztasunaren koloreekin argiztatu zen, eta Dbuseko autobusek, Udal kiroldegiek, kultur etxeek eta bestelako ekipamenduek ospakizunari buruzko kartelak erakutsi zituzten.

Gainera, LGTBIQ+ elkarteek antolatutako manifestazioa Bulebarretik abiatu zen.





Haurren Egun Unibertsala

Azaroak 20



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu

Donostiako Udaleko Giza Eskubideetako, Gazteriako eta Kultur Aniztasuneko udal atalek, Donostia Kulturarekin batera, hainbat jarduera antolatu zituzten Haurren Egun Unibertsala ospatzeko.

Hiriko Hautxokoetan eta Gaztelekuetan haurrei eta gazteeigiza eskubideei buruz gogoeta egiteko erronka egin zitzairen, jolasen eta txotxongiloen bidez.

Gainera, Haurren Egun Unibertsalaren 7. festa ospatu zen, Intxaurren Larrotxene Kultur Etxean Mestiza elkarteak diseinatutako sorpresa askorekin.

Udal-liburutugietan "Ipuinaren ordua" ere haurren eskubideei inguruan izan zen.





Hiesaren aurkako Munduko Eguna

Abenduak 1



Donostiako Udalak, Giza Eskubideen atalaren eta Musika eta Dantza Eskolaren bitartez, hainbat ekintza antolatu zituen Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza elkarteekin batera, abenduaren 1ean, ospatzen den HIESaren aurkako Munduko Egunaren harira.

Egun horretan elkarretaratzea egin zen Kalkutako Teresa plazan, HIESaren memorialaren aurrean. Bertan, HIESaren aurkako kolektiboetako kideek komunikatua irakurri zuten.

Gainera, Udalaren Musika eta Dantza Eskolak hainbat koreografia eskaini zituen Tabakalerako sarreran. Horietako batzuk egun horretarako espreski sortu zituzten. Gune horretan ere informazio mahaia jarri zituzten.

Urtero bezala, Kursaal begizta gorriarekin argiztatu zen, HIESaren aurkako borrokaren sinboloarekin. Udal ekipamenduetan, garraio publikoan eta udaletxean bertan kartelak jarri ziren egun hori gogorarazteko.





Giza Eskubideak aldarrikatzeko gune-festa

Ekainak 16



2023an Giza Eskubideen Adierazpenaren 75. urteurrena zela eta, Donostiako Udaleko Gazteria eta Giza Eskubideen sailek giza eskubideak aldarrikatzeko jaia antolatu zuten Aieteko parkean.

Kawadeni elkarteak dinamizatu zuen jaia, mendebaldeko Afrikako musikarekin eta dantzekin. Haur eta gazteei zuzendutako dantza tailerra ere eskaini zuten. Bestalde, Aiete Haurtxokoak hainbat tailer antolatu zituen, giza eskubideen ezagutzan sakontzeko. 2018an Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena ospatzeko parkean instalatutako "Eskubideen Gunea" eskulturaren Haurtxokoko haurrek jogurt-pote birziklatuetan jarritako giza eskubideei buruzko euren mezuak zintzilikatu zituzten.

Gainera, Giza Eskubideei buruzko mural parte-hartzailea egin zen, eskuak tenperekin pintatzean datzana, horma-irudian islatzeko eta haien mezuak eta nahiak adierazteko. Gainera, mural partehartzailea egin zuten.





Mandala, Kontxako hondartzan

Abenduak 10



Ekitaldiaren
bideoa ikusteko
eskaneatu

Kontxako hondartza mandala handi batekin argitu zen, "Duintasuna, Askatasuna eta Justizia" Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Aldarrikapenaren Unibertsalaren 75. urteurrena ospatzeko hautatu duen leloarekin, hain zuzen.

Ismael Arejula (isaslur13) artistak egindako marrazkiak ikusmin handia sortu zuen obra ikusteko barandara bertaratu ziren milaka pertsonen artean.





Adierazpen Unibertsala, udal-ekipamenduetan

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko artikuluekin biltzen dituzten rol-up-ak jarri ziren hainbat udal-ekipamendutan. Haur eta gazteei zuzendutako “Artea eta Giza Eskubideak” jardueraren edizioen marrazkiekin ilustratuta zeuden.

Horrela, Adierazpena grafikoki ezagutarazi nahi izan da, eta Giza Eskubideen arloak duela 20 urtetik antolatutako duen ekimen honetan parte hartu dutenei ikusgarritasuna eman.





PaseARTE. Giza Eskubideei buruzko ibilbideak

2023-2024 ikasturtea

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 75. urteurrena zela eta, PaseARTE jarduera antolatu zen. Giza eskubideekin lotutako hiriko hainbat leku eta eskultura erakusten dituen ibilbidea da.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat zuzenduta daude eta doakoak dira. Besteak beste, Dual eskultura, Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen omenez; "Oroimena / Memoria" monolitoa, indarkeriaren biktima guztiak oroitzen duena; Clara Campoamoren eskultura eta abuztuaren 31 kalea, zeharkatzen ditu. Gune horietan Adierazpenean islatzen diren gaiak lantzen dira, besteak beste, bakea, askatasuna eta emakumearen eskubideak.









Jarduerak, Haurtxokoetan eta Gaztelekuetan

Haurrek, jolasaren bidez, euren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin zuten Udaleko haurtxokoetan. Emaitza, argitalpen didaktiko eta koloretsua, “Nire Lehen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala” izenekoa.

Gaztelekuetan, berriz, gazteek Aldarrikapenaren artikuluetan sakondu zuten “Txitak, Giza Eskubideen altxorren bila” jokoarekin.



Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia

066



Donostiako Giza Eskubideen 20. Zinemaldia

Apirilaren 21etik 28ra

Zinemaldiak guztira 32 nazionalitateko 40 film (27 film luze eta 13 film labur) proiektatu zituen Victoria Eugenia, Antzoki Zaharrean eta Tabakaleran. Programazioa osatzeko, 3 film eman zituen ikasleentzat eta solasaldiak egin ziren protagonisten, zinemagileen eta filmetan jorratutako gizarte-sakonerako gaietan adituak diren pertsonen eskutik.

Bost erakusketa antolatu ziren: “Malala, ikasle ausarta”, Asier Iturraldearen irudiekin, Aiete Kultur Etxean; “Carmen Castillo, emakume erbesteratu txiletarra”, Okendo Kultur Etxean; Arte eta Giza Eskubideen 19. edizioko marrazkiak, Victoria Eugenia Antzokian; eta “Tetuán, Kanpoaldea/Barnealdea-eguna”, Liburutegi Nagusian.

Gainera, San Telmo Museoak UPV/EHUko Giza Eskubideen Ikastaroetako hitzaldia hartu zuen, Nazima Nezirabi epaile afganiarrarena, hain zuzen.



20

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2023

21 - 28 apirila / abril

Antolatzaileak / Organizan



Babesleak / Patrocinan





Euskadiko Garapenerako GKEen koordinakundeak EsnaTú giza eskubideei buruzko online jokoaren hirugarren edizioa eskaini zuen.

Martuteneko espetxean saio berezia izan zen presoentzat.



SARIAK ETA PALMARESA

Zinemaldiaren antolatzaileek Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria Carmen Castillo zinegile eta ekintzaile txiletarrari ematea erabaki zuten.

Sílvia Munt-en *Las buenas compañías* (Espainia-Frantzia, 2022) filmak Film Luze Onenaren Publikoaren Saria jaso zuen.

The Lost Souls of Syria (Frantzia-Alemania, 2022), Stéphane Malterre eta Garance Le Caisne-na, Amnistia Internazionalaren saria jaso zuen.

Elham Ehsas-en *Yellowe* film laburrak (Afganistan-Erresuma Batua, 2023) Gazte Epaimahaiaren saria jaso zuen, 3.000 €-koa.



Ekitaldiaren bideoa ikusteko eskaneatu

Elkarteentzako dirulaguntzak


07

Donostiako Udalak 40.240 euro banatu zituen giza eskubideen sustapena eta oroimen historikoa berreskuratzea helburu duten 24 proiektu diruz laguntzeko.

Dirulaguntzen helburua da bakea, bizikidetzeta, giza eskubideak, aniztasunarekiko errespetua eta memoria historikoa berreskuratzeko lanetan diharduten hiriko eragile sozialek eta elkarteek zuzendutako ekimenak eta proiektuak babestea.



Giza Eskubideei buruzko XXVII. ikastaroak



2023ko urritik 2024ko apirilera

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen bulegoaren babesarekin EHUK antolatutako Giza Eskubideen ikastaroek 27 urte bete dituzte.

Edizio honetan, gaurkotasun handiko gaiei buruzko hausnarketa egingo dute, hala nola LGTBI+ pertsonen eskubideak lan-harremanetan, Saharako gatazka, genozidio kontzeptua edo nazioarteko justizia penala, besteak beste.

Parte hartuko duten pertsona ospetsuen artean daude Rosa María Calaf kazetaria, Manuel Ollé Giza Eskubideen Europako Auzitegiko abokatua eta Abdulah Arabi Frentee Polisarioko eta Espainiako RASDeko ordezkaria.

Ikastaroak osatzeko, hiru beka emango dira ikasleak Estrasburgoko René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Irakaskuntzako Urteko Bilkurara joan daitezen, eta txosten guztiak jasotzen dituen urteko argitalpen bat.



**GIZA
ESKUBIDEAK**

**DERECHOS
HUMANOS**

**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**IKASTAROAK
CURSOS**

Memoria Giza Eskubideak

Donostiako Udala

2023



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Giza Eskubideen Saila

Aieteko Jauregia
Aiete Pasealekua 65, 20009 Donostia
943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus
www.donostia.eus/gizaeskubideak

